

TXOSTENA

2 0 2 4



**KOOPERATIBEN
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



KOOPERATIBEN KONTSEILUA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi

“Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (KOOPERATIBEN KONTSEILUA) kooperatibismoa sustatu eta zabaltzea bermatuko duen topaketa-organoa da, eta euskal herri-administrazioen aholkulari kooperatiba-gaietan.

Halaber, balio eta printzipio kooperatiboak onartu, defenditu, sustatu eta zabalduku ditu”.

Bere arau esparrua lege-arau hauetan dago: abenduaren 20ko 11/2019 Legeak, Euskadiko Kooperatiben Legeak (2019ko abenduaren 30eko EHAA (247 zk.) 165. artikuluan xedatutakoa, eta maiatzaren 11ko 213/1999 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen duena (1999ko ekainaren 7ko EHAA (106 zk.).

Egoitza soziala:

Reyes de Navarra, 51

01013 GASTEIZ

Tfnoa. 945 121 155

info@kooperatibenkntseilua.eus

www.kooperatibenkntseilua.eus

TXOSTENA

2 0 2 4



**KOOPERATIBEN
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



Balantzea egiteko unea iritsita, KOOPERATIBEN KONTSEILUAN atzera begiratu eta pozik esan dezakegu 2024. urtea ilusioz beteriko ekitaldi emankorra izan dela, eta askotariko esparruetan aritu garela, baina beti fokua kooperatibismoaren sustapenean eta hedapenean jarrita.

Balioan jarri dugu erabilera lagapeneko erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzaren lehen kooperatiba eraikitzen hasi izana, etxebizitzaren eskubide unibertsalera hurbiltzen gaituen eredu baina, inbertsioaren aurrean erabilera lehenesten baitu.

Gazteengana hurbildu ere egin gara. Oso garrantzitsua izan da antolatu genuen jardunaldian Euskadiko gazte kooperatibistei entzunda edo haiei egindako 600 inkesten emaitzen bidez jakitea zer behar eta itxaropen dituzten lan munduarekiko. Izan ere, modu horretan ikasten eta identifikatzen du eredu kooperatiboak zer erronka izango dituen etorkizunean enpresa kooperatiboen lekukoa hartuko duten behar eta espero dutenera egokitzeko.

Publikoki aitortu ditugu taldeak lan egiten, ahaleginak partekatzen eta lankidetzari esker, gizaki gisa definitzen gaituen eta kooperatiben funtsezko zutabea den balio horri esker, arrakastak lortzen mende erdia bete duten kooperatibak, eta "Kooperatibak egungo gizartearen erronkei emandako erantzunak" izeneko uda ikastaroan erantzunak bilatzen saiatu gara, eta, aldi berean, OTALORArekin hitzarmen bat bultzatu dugu, eredu kooperatibista sustatzeko eta kooperatibetako pertsonen zein publiko berriei eredu hori ezagutarazteko.

2024an ere euskal hauteskunderen ondoren erakunderen arduradun direnekin harremanak sendotu ditugu, eta Eusko Legebiltzar berrira hurbildu gara euskal kooperatibismoaren errealitatea helarazteko.

2024an egin ditugun ekintza, bilera eta lankidetzak guztiak 2025eko urteari gogotsu harrera egiteko aurretiazko uneak izan dira, Nazio Batuen erakundeak 2025a Kooperatiben Nazioarteko Urtetzat jo baitu, partekatzen dugun lelo honekin: Kooperatibek mundu hobe bat eraikitzen dute, Nazioarteko Urteari hasiera emateko New Delhin egindako Nazioarteko Konferentzian eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Batzar Nagusian parte hartuz ere hala egin genuen-eta.

Izan ere, mundu honetan, non desberdintasunak gero eta gehiago diren, kooperatibek egunero erakusten dute aberastasuna modu bidezkoagoan sortu eta banatu daitekeela, ORKESTRA Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin batera datuekin agerian utzi dugun bezala.

Eskerrik asko beren lanarekin, ahaleginarekin eta ilusioarekin indarrak batzen eta mundu hobe baterantz aurrera egiten lagundu duten guztioi.

Patxi Olabarria

Presidente





1. KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN osaera 7

2. Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea 11

2.1 Sustapena:

- 2.1.1 50 urteko kooperatiben omenaldia.
- 2.1.2 M8. Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago.
- 2.1.3 Kooperatiben Nazioarteko Eguna.
- 2.1.4 "Gazteria Euskal Kooperatibismoaren aurrean" izeneko jardunaldia.
- 2.1.5 "Kooperatibaren erantzunak egungo gizartearen erronkei" izeneko uda ikastaroa.
- 2.1.6 CIRIEC Kongresua.
- 2.1.7 Indiako Kongresua eta Nazioarteko Urtearen aurkezpena.

2.2 Zabalkundea:

- 2.2.1 Kooperatibismoari buruzko inkesta euskal gazteen artean.
- 2.2.2 YOUTUBE kanala.
- 2.2.3 Mondragon City Challengeko bigarren topaketa kooperatiboa.
- 2.2.4 Beste komunikazio ekintza batzuk.

2.3 Lankidetzak:

- 2.3.1 Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak.
- 2.3.2 KOOPERATIBISMOA EZAGUTZEN, Otorarekin egindako hitzarmena.
- 2.3.3 Bizikide S.Coop.en lehen harria.
- 2.3.4 Euskal Kooperatibismoaren behatokia.
- 2.3.5 Ekitaldietan parte hartzea.



3. Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea **35**

- 3.1 Aginduzko txostenen lanketa.
- 3.2 Kontsultak.
- 3.3 11/2019 Kooperatiben Legearen hirugarren aldaketa
- 3.4 Asmoen eta Lankidetzaren Akordioa.
- 3.5 Topaketa instituzionalak.
 - 3.5.1 Lehendakariordea Osoko Bilkuran.
 - 3.5.2 Lehendakariordearekin bilera.
 - 3.5.3 Eusko Legebiltzarrean agertzea.

4. Errolda kooperatiboaren datuak **43**

- 4.1 Kooperatiba berriak.
- 4.2 Kooperatibak azkentzea:
eraldaketak eta likidazioak.
- 4.3 Kooperatiben errolda.

5. Arbitraje zerbitzua: Bitartu **47**

- 5.1 Kooperatiben eremuko bitartekariei buruzko ikastaroa.
- 5.2 Kontsulten datuak. Adiskidetzeak. Arbitrajea.

6. Erakunde partaidetuak **55**

- 6.1 Elkarlan, S.COOP.
- 6.2 Elkargi, SGR.

7. 2024ko ekitaldi ekonomikoa **59**

- 7.1 Balantze Ekonomikoa eta Soziala.
- 7.2 Kudeaketa Planaren betetze maila.



KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN

osaera



Hau da KOOPERATIBEN KONTSEILUAreñn osaera 2024-12-31n:



Patxi Olabarria jauna
(Presidente/Konfekoop)



Jokin Diaz jauna
(Presidenteordea/Eusko Jaurlaritza)



Eugenio Jiménez jauna
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritza)




Ana Camacho andrea
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritza)



Joseba Mariezkurrena jauna
(Kontseilukidea/Bizkaiko Foru
Aldundia)



Unai Andueza jauna
(Kontseilukidea/Gipuzkoako Foru
Aldundia)



Ander Larrinaga jauna
(Kontseilukidea/Arabako Foru
Aldundia)



Rosa Lavín andrea
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Iñaki Nubla jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Alejandro Elejabarrieta jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)




Mikel Larrea jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)




Pablo Durana jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Iñigo Albizuri jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Beñat Azurmendi jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Jon Loroño jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Oier Lizarazu jauna
(Kontseilukidea/Konfekoop)



Marta Enciso andrea
(Kontseilukidea/
Deustuko Unibertsitatea)



Ainara Udaondo andrea
(Kontseilukidea/
Mondragon Unibertsitatea)



Aitziber Etxezarreta andrea
(Kontseilukidea/
Euskal Herriko Unibertsitatea)

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko langileak


2024ko ekitaldian, pertsona hauek osatzen zuten plantilla:



Belen Balerdi andrea
(Idazkari Nagusi Teknikoa)



Santiago Merino jauna
(Letradua-Aholkularia)



Ion Azpiazua jauna
(Administraria)



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea

2.1 Sustapena

2.1.1 50 urteko kooperatiben omenaldia



KOOPERATIBEN KONTSEILUAK aitortza erakutsi zien Euskaditik mundu hobe eraikitzen mende erdi baino gehiago daramaten hogeita hamar euskal enpresa kooperatibori baino gehiagori. 2019an, jada, 50 urte baino gehiago egina zuten 69 enpresaren ibilbidea balioetsi zen. Bost urte hauetan euskal ekonomiarentzat ekarpen garrantzitsua egin duten enpresa kooperatibo gehiago batu dira, eta kooperatiba horiek izan ziren urriaren 3an Euskalduna Jauregian egin zen ekitaldiko protagonistak, horiei egingo baitzitzaien omenaldia, merezita.

Ekitaldian Mikel Torres Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua egon zen, baita Euskadiko beste agintari eta kooperatiba eta enpresa munduko beste ordezkari batzuk ere.

Aitortza horren osagarri, Juan Luis Arsuaga paleontologo ezagunak "Cooperar para competir: la clave de la evolución social" izeneko hitzaldia eman zuen, non



lankidetzaz duen ikuspegia azalduko baitzuen; izan ere, haren ustez, lankidetzaz ez da soilik giza balio bat, gure bilakaera eta gizateriaren historia ulertzeko funtsezko gako bat ere bada.

Komunikabideek ekitaldi honen berri eman zuten, bi prentsa oharren eta argazki batzuen bidez. Noticias Taldeko egunkariak eta beste komunikabide batzuek ere, hala nola Naiz, Estrategia Empresarial, El Diario Vasco, Onda Vasca edo Tu Lankide komunikabideek ere aitortza honi buruzko erreportajeak kaleratu zituzten.

Gainera, Juan Luis Arsuagak KOOPERATIBEN KONTSEILUArentzat elkarriketa eskusibo bat eman zuen, webgunearen eta sare sozialen bidez zabaldu zena.





Hauek izan ziren omendutako kooperatibak:

Araba

Aurrenak, S.Coop., Coop del Campo Lagunak, Goros S.Coop., RPK Group S.Coop., Olabide Ikastola Koop.E.

Bizkaia

Azkorri Ikastetxea Koop.E., Cikautxo Group S. Coop., Colegio Basauri Ikastetxea Koop.E., Colegio El Regato Ikastetxea Koop.E., Cooperativa Agrícola Ganadera de Sodupe, Cooperativa de Exhibidores Fides Norte, Cordevi S.Coop., Eguzkibegi Ikastola Koop.E., Eika S.Coop., Elorrioko Txintxirri Ikastola Koop.E., Kurutziaga Ikastola Koop.E., Lauro Ikastola Koop.E., Maier S.Coop., San Nikolas Ikastola Koop.E., Seberia Bilbaina S.Coop., Transvol Transportes de Volquete S.Coop., Zubi Zaharra Ikastola Koop.E., Zubi Zahar Herri Ikastola Koop.E.

Gipuzkoa

Deutsche Schule San Sebastian Colegio Aleman S. Coop., Exportadores de pescado de Guipuzcoa S.Coop., Ikerlan S.Coop., Lagun-Aro Servicios S.Coop., Lurgintza Koop.E., Nekazarien Etxea, S. Coop., Onnera Group Fagor S.Coop., Pedro Miguel Urruzuno Koop.E., Salvatore Mitxelena Ikastola Koop.E.



2.1.2 M8. Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago

Laugarren urtez jarraian KOOPERATIBEN KONTSEILUak eta KONFEKOOPEk Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zuten martxoaren 8an. Ospakizuna Gasteizko Goiuri jauregian egin zuten, emakume kooperatibisten lana aitortuz. **Elkarrekin ahalduntzen, historia sortzen: kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago** leloarekin, omenaldia egin zitzaizen kooperatibismoaren eta feminismoaren historian lagundu duten emakume aitzindariari.

Idoia Mendiak, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak, eman zion hasiera ekitaldi instituzionalari, eta bukaera, berriz, Nerea Melgosa Berdintasun sailburuak eman zion, haren aurretik Ana Lopez de Uralde Gasteizko Udaleko Berdintasun zinegotziak eta Jone Berriozabal Arabako Berdintasunerako foru diputatuak parte hartuta. Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Irma Basterra Arabako Batzar Nagusietako presidentea eta Elena Perez Barredo Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea ere bertan izan ziren.

KOOPERATIBEN KONTSEILUKO idazkari nagusi teknikoak ekitaldiaren aurkezpena egin zuen, Virginia Imaz komikoaren ikuskizunak lagunduta.





XX. mendearen hasieratik gaur arte, ehunka emakume izan dira euskal kooperatibismoaren parte, eta bere lanarekin eta ahaleginarekin Euskadi justuago bat egiten lagundu dute. Emakume horien guztien ordezkari gisa, hamarkada bakoitzeko aitzindariari aitortza egin zaie, hiru une historikotan.

- 1910etik 1969ra. Hamarkada horietan, non emakumearen egoera hainbat etapetatik igaro baitzen, esaterako, Bigarren Errepublikaren askatasunetik eta frankismoaren zapalkuntzatik ere, aitortza egin zaie Jesusa Oregui Madariagari (Cooperativa de Consumo Placencia-1910), Juliana Ruiz de Viñaspre Susori (Cooperativa agraria San Roque-50eko hamarkada) eta Leonor Berezibarri (Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, 60ko hamarkada). Horrez gain, Itziar eta Lurdes Mujika Lasagabasterrek (Fagor Arrasate), Elena Arrieta Berecibarrek (Laboral Kutxa) eta Pili Saiz Guixenek (ULMA) emandako testigantzak izan dira.
- 1970etik 1999ra. Hiru hamarkada horietan, non aldaketa sozial handiak gertatu ziren eta emakumeak lan bizitzan sartzen hasi baitziren pixkanaka, aitortza egin zaie Garbiñe Beristain Juaristiri eta Begoña Sorazu Arostegui (Pedro Migel Urruzuno - Elgoibar Ikastola-1970); Kontxi Satrustegui Martijari (Arrospe, S.Coop-1980) eta Arantza Alzola Galdosi (LKS S.Coop.-1990). Horrez gain, Nieves Agirre Zugastik (Lana S.Coop), Bego Bengoa Larrakoetxeak (KIRIKIÑO ikastola) eta Elena Gil Crespok (KOOPERA ingurumen zerbitzuak) emandako testigantzak izan dira.
- 2000tik 2023ra. Oraingo garaian, jarduera sektore asko eta askotarikoetan emakumeek gidatutako kooperatiben garapena nabarmentzen da. Horien adibide gisa, aitortza egin zaie Ariane Estiballes Arrateri, Eider Arbaizagoitia Uriarteri, Katixa Arteaga Olabarriari eta Miren Goiria Larreari (Grafik Sarea Scoop-2000), Maria Pilar Pol Garciari (Databost Scoop-2010) eta Ainhoa de Eguia Lopezi (ADESIO S.Coop-2020). Gainera, honako hauen testigantzak izan dira: Maria Dolores Sanz (Petra S.Coop), Ainhoa Esnaola Mendizabal eta Miren Fernandez Larrañaga (TZBZ, S.Coop), Vanessa Berriuso (Euskaber. S.Coop) eta Mertxe Barrena Meaza (ZUREALDE Koop.).



Ospakizun hori dela eta, komunikazio kanpaina bat egin zen Radio Euskadin eta Euskadi Irratian iragarki laburrak eginez, Noticias Taldearen goiburuetan elkarrizketak, eta Naiz.eus eta Estrategia Empresarialen bannerrak.



2.1.3 Kooperatiben Nazioarteko Eguna

"Kooperatibek etorkizun hobe eraikitzen dute pertsona guztientzat" izan zen uztailaren 6an, larunbata, ospatu zen Kooperatiben Nazioarteko Egunaren leloa, egunaren helburua baita mugimendu kooperatiboak ekonomiari eta gizarteari egiten dizkion ekarpenak nabarmentzea. Jardunaldiak bultzada hartzeko eta 2025erako bideari ondo ekiteko balio zuen, NBEk Kooperatiben Nazioarteko Urtea izendatu baitzuen urte hori.

Egun hau mundu osoan ospatzen da duela mende batetik, eta garrantzi berezia du Euskadin, kooperatibismoak duen inpaktuagatik, izan ere, Euskadin 2.000 enpresa kooperatibo baino gehiago daude, eta kooperatiba horiek zuzeneko 62.000 enplegu baino gehiago sortzen dituzte eta 12.000 milioi euro fakturatzen dituzte, EAEko BPGaren %10, alegia. Milioi eta erdi kooperatibista baino gehiagorekin, Euskadiko biztanleriaren %75ek Euskal Herriko kooperatibismoarekin nolabaiteko harremana duela kalkulatu da.

Hain nabarmen den egun honetan, euskal kooperatibek, eta munduko gainerakoek ere, etorkizun hobe bati laguntzen dion enpresa gisa dituen estandar altuak balioesten dituzte. Horregatik, aurtengo leloarekin erabat baieztatzen da hazkunde jasangarri eta inklusiboa lortzeko kooperatibek egiten duten ekarpena, ingurumenarekin, berdintasun errealarekin eta ekitatearekin konpromisoa hartu beharraz jabetuta, eta gazteengan konfiantza dutela erakutsita, gazteak etorkizuna baitira. Mezu hori zabaltzeko iragarkiak kontratatu ziren uztailako lehen astean Radio Euskadin, Euskadi Irratian, Onda Vascan, Naiz Irratian eta Bilbao Herri Irratian.

Belen Balerdik, KOOPERATIBEN KONTSEILUKO idazkari nagusi teknikoak, iritzi zutabe bat egin zuen SER Euskadin, eta EITB-Radio Vitorian eta Radio Popularren elkarrizketatu zuten, Noticias Taldeak Bilboko Domine hotelean antolatutako mahai inguru batean parte hartzeaz gain.

Noticias Taldeak, berriz, Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentea elkarrizketatu zuen, Kooperatibismoaren Astea zela eta kaleratutako gehigarri berezi batean.



2.1.4 Gazteria Euskal Kooperatibismoaren aurrean izeneko jardunaldia

Kooperatiben Nazioarteko Egunaren testuinguruan, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK eta KONFEKOOPEk gogoeta jardunaldi bat antolatu zuten "Gazteria Euskal Kooperatibismoaren aurrean" izenburupean, gazteek beren lanarekin lotuta dituzten beharrak ulertzeko. Euskadiko hogeita hamar gazte, tartean ikasleak eta kooperatibistak, lan munduarekiko dituzten beharrak eta itxaropenak jakinarazi zituzten lan saio batean; izan ere, lan saio horren helburua izan zen enpresa kooperatiboan lekukoa hartuko dutenei egokitzeke eredu kooperatiboak heldu beharreko etorkizuneko erronkak identifikatzea.



Kooperatibismoari buruz ezagutza maila desberdinak izan arren, parte hartu zuten gazteak bat zetozen esatean kooperatiba dela enpresan parte hartzea hobekien errazten duen forma juridikoa, bai erabakiak hartzean, bai gestioan. Kooperatibistek asko baloratzen dute pertsonak aukera izatea enpresan entzuna izateko eta enpresaren antolaketan eta erabaki garrantzitsuenetan parte hartzeko eta enpresak elkartasuna eta gardentasuna sustatzea, eta alderdi horiek ere nahiko lituzkete oraindik lan bizitza hasi ez duten gazteek.



2.1.5 "Kooperatibaren erantzunak egungo gizartearen erronkei" izeneko uda ikastaroa

UIKeko Uda Ikastaroen esparruan eta bigarren urtez jarraian, Kooperatiben Kontseiluak "Kooperatibaren erantzunak egungo gizartearen erronkei" izeneko ikastaroa antolatu zuen irailaren 6an Donostiako Miramar Jauregian. Munduan gertatzen ari diren eraldaketen aurrean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak euskal enpresa kooperatiboek duten posizio positiboa aztertu eta ikusarazi nahi izan zuen.

Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUko presidentek eman zion hasiera ikastaroari, eta Elena Perez Barredo Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuordeak ere parte hartu zuen bertan.

Ikastaroa bi zatitan banatu zen. Egunaren lehen zatian bi hitzaldi aurkeztu ziren, egungo erronka erabakigarrienei buruz: jarduera ekonomikoen etorkizuna eta erronka demografikoa.

Prospektiker - Prospektiba eta Estrategiaren Europako Institutuko zuzendari Ibon Zugastik joera ekonomiko globalen egungo egoera aztertu zuen, oinarri industrialeko euskal enpresa kooperatiboen kasuko zehaztapena



bilatzeko, errentaren birbanaketaren eta elkarlanezko enpresa proiektuen garapenaren adibide gisa, munduko beste eskualde batzuetarako. Begirune Fundazioko presidente Xabier Aierdik, berriz, Euskadik aurrean duen erronka demografikoaren azterketan sakondu zuen, Europako eskualde zahartuenetako bat baita, eta gertatzen ari diren migrazio prozesuen rola ere aztertu zuen. Aierdik azaldu zuen immigrazioa gure gizartearen arazo estrukturalen irtenbidea izan daitekeela.

Ikastaroaren bigarren zatian, hainbat esperientzia kooperatibo ezagutarazi ziren, zehazki erronka demografikoarekin lotutakoak. SSI taldearen, Bihar Homecareren eta Ikerlanen ordezkariak zahartzeari, gazteriari eta talentua erakartzeari lotuta enpresa kooperatibo gisa dituzten proiektuak azaldu zituzten.

Eguna bukatzeko, Arrasateko zentro korporatiboko gestio sozialeko zuzendari Zigor Ezpeletak hitzaldi bat eman zuen. Hitzaldian, egungo egoera sozioekonomikoa testuinguruan kokatu zuen, eta fokua gizarte ekonomiak erronkei aurre egiteko duen moduan eta etorkizunean datorkigun eraldaketari arrakastaz ekiteko ezar daitezkeen estrategietan jarri zuen.





2.1.6 CIRIEC kongresua

CIRIEC-Españak IUDESCOOP-Universitat de València (UV) eta CEGEA-Universitat Politècnica de València (EHU) erakundeekin batera irailaren 26 eta 27rako antolatu zuten "Ekonomia Sozialaren sustapena. Tresna Fiskalak eta Politika Publikoak" izeneko kongresuaren esparruan, Belen Balerdik eta Marta Enciso, KOOPERATIBEN KONTSEILUko idazkari nagusi teknikoak eta kontseilukideak, hurrenez hurren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren aurkezpena egin zuten.

CIRIECen egutegiko ezohiko kongresu horrek ardatz izan zuen gaia hau izan zen: "Administrazio publikoa eta ekonomia soziala: oparotasun inklusibo baterako aliatuak". Bertan 300 pertsona inguruk parte hartu zuten, tartean ekonomia sozialeko ikertzaileak, legelariak, administrazio publikoetako eta kooperatiben sektoreko eta ekonomia sozialeko ordezkariak zirela.

2.1.7 Indiako Kongresua eta Nazioarteko Urtearen aurkezpena

KOOPERATIBEN KONTSEILUA New Delhira (India) joan zen munduko kooperatibismoko bi ekitaldi garrantzitsuenetan euskal ordezkartzairen buru gisa: Nazioarteko Konferentzia eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Batzar Orokorra 2025eko Kooperatiben Nazioarteko Urteari hasiera emateko.

Kooperatiben Nazioarteko Urtea abiarazteko ekitaldi ofiziala azaroaren 25ean egin zen Nazio Batuetako kargu gorenen ordezkariak, agentzia aliatuak eta hautatutako estatu kideak bertan zirela, bai eta munduko kooperatiba munduko erakunde erreferenteak ere, hala nola KOOPERATIBEN KONTSEILUA.

2025eko Kooperatiben Nazioarteko Urtearen gaia hau izango da: "Kooperatibek mundu hobe bat eraikitzen dute". Kooperatibek, gobernuek eta nazioarteko beste erakunde batzuek enpresa ereduari buruzko kontzientzia sortuko dute eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuen lorpenean duten paper garrantzitsua nabarmenduko dute. Horrela, 2025ean zehar

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea




hainbat ekintza egingo dira mugimendu kooperatiboak egindako bideari eta planteatzen zaizkion erronkei buruz hausnartzeko.

New Delhiko hitzorduak hainbat egunetan luzatu ziren, eta euskal ordezkariak presentzia aktiboa izan zuen, honako hauen hitzaldiekin: Jokin Diaz Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendaria, Ana Aguirre TAZEBAEZ S.Coop. en sortzaileetako bat eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboko Gazteriaren munduko presidentea, Ibon Zugasti LKSko (Mondragon Korporazioko Aholkularitza alorreko Dibisioa) nazioarteko gerentea, Iñigo Albizuri Mondragon Korporazioko Gai Publikoetako zuzendari orokorra eta CICOPako presidentea, eta Leire Muguerza Mondragoneko Kongresuko presidentea.

Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidentek Hezkuntza Erakundeetako Kooperatibei buruzko erakusketa eta eztabaida batean parte hartu zuen.



ASETT (Arizmendiarrrieta Gizarte Ekonomiaren Think Tank) proiektuaren aurkezpenean ere parte hartu zuen. Proiektua aitzindaria da munduan, eta ezagutza eta esperientziak uztartuko ditu beste ekonomia bat sustatzeko.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Euskal ordezkaritzak IFFCO ere bisitatu zuen. Indiako kooperatibarik handiena da, eta ongarrietan liderra da.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



2.2 Zabalkundea

2.2.1 Kooperatibismoari buruzko inkesta euskal gazteen artean

Gure gazteak ekintzailatza kolektibora erakartzeko erronkaren aurrean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak Gizaker enpresari inkesta bat prestatzeko agindu zion euskal gazteen arteko kooperatibismoa aztertzeko. Azterketa irailean eta urrian egin zen EAEn bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko euskal biztanleen artean.

Azertu ziren gai nagusiak hauek izan ziren: lan motibazioan erabakigarriak diren faktoreak, enplegu tipologiaren pertzepzioa eta prestigioa, lanaren aurrean esfortzu maila, ekintzailatza maila eta lotutako irudia, eta kooperatibismoaren ezagutza eta irudia. Ikerketan etorkizuneko analisi berrietarako erreferentzia puntu gisa balio duten datu ugari atera ziren.

2.2.2 YOUTUBE kanala

Bideo laburren formatuan, Kooperatibismoa gazteengan sustatzen izenburua duen eta gazteen artean kooperatibismoa sustatzea helburu duen elkarrizketa sorta bat zabaldu zen YouTube kanalean. Horrela 13 gazte kooperatibistek kooperatibismoak bere garapen profesional eta pertsonalean izan duen eragina azaldu zuten, bai eta kooperatibismoak gaur dituen erronkak zeintzuk diren ere.





2.2.3 Mondragon City Challengeko II. topaketa kooperatiboa

Apirilaren 22an, Mondragon City Challengeko Bigarren Topaketa Kooperatiboa egin zen Garaia parke teknologikoan. Oraingoan, El Diario Vasco egunkariak, Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak, KOOOPERATIBEN KONTSEILUAK, KONFEKOOPEk, Mondragon Korporazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eta Mondragon Unibertsitateak antolatu zuten ekitaldia.

Hiru ekintzaile gazte: Eider Etxebarriak (Bizipoz), Ainhua Martinek (Up me Up) eta Alain Rodriguezek (Mujeres de la Luna) azaldu zuten nola bihurtu duten beren ideia sozietate kooperatibo eta zergatik sinetsi eta aukeratu zuten aukera hori beren enpresa eratzerakoan. Ziortza Olano coacharen hitzaldia ere izan zen topaketan.

Topaketa Kooperatiboak Ekintzailetza Kooperatiboko Nazioarteko Txapelketaren hirugarren ediziorako sarrera gisa balio zuen, txapelketa horren helburua baita mundu osoko batxilergoko, prestakuntza zikloetako eta unibertsitate zikloetako ikasleek enpresa kudeaketako gaitasunak garatzea eta gehienez bederatzi hilabeteko epean negozio eredu kooperatibo bat baliozkotzeko gaitasuna izatea. Urte amaieran hirugarren edizioko finalista izateko 20 proiektuak aukeratu ziren.



Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



2.2.4 Beste komunikazio ekintza batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak **KOOP aldizkarian** parte hartzen du une jakinetan; KONFEKOOPEk argitaratzen du aldizkaria, mugimendu kooperatiboarekin lotuta Kontseiluak egiten dituen jarduerak eta ematen dituen zerbitzuak balioesteko. 2024an zehar bost artikulu argitaratu dira lau zenbakitan. Lehenengoa aldizkariaren 100. zenbakian argitaratu zen, eta bertan Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidenteari elkarrizketa egin zitzaion. Gai hauek

ere landu ziren: "Gazteak eta euskal kooperatibismoa, etorkizuneko erronkak identifikatzeko topaketa batean elkarrekin", "50 urte Euskaditik mundu hobe bat eraikitzen", "Juan Luis Arsuaga paleontologoari egindako elkarrizketa" eta "Dena prest Kooperatiben Nazioarteko Urterako".

Kontseilua **Noticias Taldearekin** akordio bat egin zuen New Delhin izan zen Kooperatiben Nazioarteko Urtearen inaugurazioaren berri emateko. Era berean, **Diario de Noticias de Alavaren** gehigarri berezi batean parte hartu zen. Gehigarriaren izena "Araba en +" zen, eta bertan urteko albiste positiboak sartu ziren, 50 urte bete zituzten kooperatibei egindako aitortzari buruzko informazioaz gain.

Goiena Taldearen Kooperatibak izeneko gehigarrian eta **Diario Vasco**-ko Ekintzaitza izeneko gehigarrian ere parte hartu da.

22 KOOPERATIBAK

Kooperatiben Nazioarteko Urtea

2024ko abuztuaren 15ean, New Delhin hirian, Nazioarteko Kooperatiben Nazioarteko Urtearen inaugurazioa egin zen. Gai honi buruzko artikulu batzuk argitaratu dira aldizkarian, eta besteak beste, kooperatiben 50. urtearen inguruan. Artikuluak kooperatiben historia, eragina eta etorkizuna azaltzen dituzte. Gaiak: kooperatiben 50. urtearen inguruan, kooperatiben eragina, kooperatiben etorkizuna, kooperatiben historia, kooperatiben eragina, kooperatiben etorkizuna.

Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialari ezinbesteko ekarpena

Gero eta handiago da enpresa kooperatiboen Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialari egiten dioten ekarpena. Gainera, kooperatibak gehien dituzten eskualdeak dira. Datuak, adibidez: orjinate-indize handiagoa dute.

CURE INGURUENA ETENGABE ALDATZEN ARI DA ETSI HORREN AURREAN EZIN HOBEA DA KOOPERATIBA

Enpresa kooperatibak berriro ere mundu hobe bat egin da gurekin elkarrekin. Kooperatibak berriro ere mundu hobe bat egin da gurekin elkarrekin. Kooperatibak berriro ere mundu hobe bat egin da gurekin elkarrekin. Kooperatibak berriro ere mundu hobe bat egin da gurekin elkarrekin.



2.3 Lankidetzak

2.3.1 Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak

Esandako erakunde laguntzaileek jardute ildo horien garapenerako aurkeztutako proposamenen artean aukeraketa egin ondoren, 2024ko ekitaldian 382.452,96€ bideratu dira guztira programa hauen kofinantzaketarako:

Zk.	2024ko Jarduera / Programa	Erakundea
1	Heziketa kooperatiboa	KONFEKOOP
2	Trebetasun komertzialetan aholkularitza eta laguntza emateko programa	KONFEKOOP
3	Sare Sozialetako Komunikazio Komertzialeko Programa	KONFEKOOP
4	Kooperatibetan Urteko Gestio Plana edo Aginte Taula Integrala ezartzeko programa	KONFEKOOP
5	Kooperatibaren Barne Antolaketarako Programa	KONFEKOOP
6	Berdintasun Programa – Kooperatibei Berdintasunaren arloko aholkularitza ematea	KONFEKOOP
7	KOONFEKOOP aldizkaria	KONFEKOOP
8	Indiara bidaia	KONFEKOOP
9	Mondragon City Challenge	KONFEKOOP
10	Ikasgeletan kooperatibismoa zabaltzeko kanpaina	KONFEKOOP

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Zk.	2024ko Jarduera / Programa	Erakundea
11	Ikasleen kooperatibak inplementatu eta sortzea	KONFEKOOP
12	Irakaskuntza kooperatiben plan estrategikoa	KONFEKOOP
13	Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko ikastaroa Irakaskuntza Kooperatibentzat	KONFEKOOP
14	Adimen Artifiziala-Irakaskuntza Kooperatibak	KONFEKOOP
15	Bidaia Teknikoa Galiziara	KONFEKOOP
16	Erreforma Fiskala Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban	KONFEKOOP
17	Formazio Digitaleko Plataforma	KONFEKOOP
18	Bideo korporatiboa berritzea	KONFEKOOP
19	Kooperatibismotik gidatzea	KONFEKOOP
20	Kooperatibak eta ekintzailatza	Euskal Herriko Unibertsitatea
21	Kooperatibismoa, enpresetako errelebo kasuetarako mekanismo gisa. Krisi demografikoa, Euskadiko enpresa kooperatibentzako erronka eta aukera gisa.	Deustuko Unibertsitatea
22	Kooperatiba berrien sustapena	Elkar Lan
23	Finantza abalak ematea.	ELKARGI, SGR
24	Euskal gizartea euskal ekosistema kooperatiboaren errealitatera eta ekosistemara irekitzea	Otalora

Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea

2.3.2 KOOPERATIBISMOA EZAGUTZEN, Otorarekin egindako hitzarmena

KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN zeregina da kooperatiba zabaltzea, enpresa eredu horretan gauzak nola eta zertarako egiten diren desberdina baita enpresa tradizionalarekiko. Eredu horren hedapena areagotzeko, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak eta Otorara Zuzendaritza eta Kooperatiba Garapenerako Zentroak hitzarmen bat sinatu zuten eredu kooperatibista sustatzeko eta bazkideetako bertako pertsonen zein beste pertsona batzuei ere eredu hori ezagutarazteko.



Hitzarmena sinatzeko ekitaldia azaroaren 18an egin zen Otorara zentroan (Aretxabaleta, Gipuzkoa), Belen Balerdi Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko idazkari nagusi teknikariak eta Javier Santos Otorarako ordezkariak sinatuta.

Hitzarmenaren bidez kooperatibismoari buruzko euskarriak diseinatu eta garatuko dira eta honako publiko hauei zuzendutako zabalkunde jarduerak egingo dira: Kooperatibetako kideak, enpresa kooperatiboetako harreman sareko kideak, Unibertsitateko eta Formazio Zikloetako irakasleak, Euskal Gazteria, Politikariak eta Administrazio Publikoko eta Beste Interes Taldeetako kideak.

Programatutako ekintzen artean OTALORako Hedapen Kooperatiboko Zentrora eta bertako kooperatibetara egindako bisitak nabarmentzen dira, esperientzia errealak erakusteko eta eredu kooperatiboak euskal gizartean eta ekonomian duen eraginaren inguruko hausnarketak sustatzeko.

2.3.3 Bizikide S.Coop.en lehen harria

Otsailaren 15ean, BIZIKIDE, S. COOP. etxebizitza kooperatibak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatutako lehiaketa publikoaren esleipendunak, Donostiako Txomin-Enea auzoan erabilera lagapeneko erregimenean babes ofizialeko 109 etxebizitza eraikitzeko lehen harria jarri zuen. Ekitaldia Bizikoopen idazkari nagusi Gotzon Gondrak aurkeztu zuen, eta bertan parte hartu zuten Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuorde Elena Perezek, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuorde Pedro Jaureguik, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko presidente Patxi Olabarriak eta Arrasate Taldeko zuzendari nagusi Pello Sologaistoak.

Horrela, BIZIKIDEk, zeina Grupo Arrasate Taldeak kudeatzen baitu eta Etxebizitza Kooperatiben Federazioan-BIZIKOOPEN barruan baitago, Euskadin egiten den erabilera lagapeneko etxebizitzaren lehen sustapena eraikitzeari ekin zion. Gainera, gizartearentzat garrantzi eta balio handieneko esperientzia izango da Euskadin eta Estatuan, eta, seguruenik, formula horretan oinarritutako etxebizitzaren beste sustapen batzuk ekarriko ditu.





2.3.4 Euskal Kooperatibismoaren behatokia

2024an zehar Orkestrarekin hainbat formazio bilera egin dira euskal kooperatibismoaren behatokiaren errealizazioari buruz, Gizarte Ekonomiako abangoardiako Hub-aren eraketara joateaz gain.

2.3.5 Ekitaldietan parte hartzea

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak honako ekitaldi hauetan parte hartu du:

- IX. Topaketa kooperatiboa MU
- San Inazio Eguneko Harrera BFA
- Santi Merino etxebizitza kooperatibei buruzko doktore tesiaren defentsa
- Laboral Kutxaren Gastro Sariak
- Konfekoopen Batzarra
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu Kongresua
- GEZKIren 40. urteurrena





- Orkestraren 2024ko Lehiakortasun Txostenaren aurkezpena
- EROSKI aldizkariaren 50. urteurrena
- Hiru euskal unibertsitateetako kurtso akademikoen irekiera
- ULMAren dokumentalaren aurkezpena
- Korrikan parte hartzea KONFEKOOPEkin batera
- Elkargiren Finantza Topaketa. Hizlaria: Espainiako Bankuko gobernadorea
- CEBEK batzarra
- Olatukoopeko hamargarren urteurrena
- Elkargi Enpresa Topaketa
- Innobasquen Batzarra
- Etxebizitza politikei buruzko Nazioarteko Kongresua



Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea



3. Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea

3.1 Aginduzko txostenen lanketa

Aholku emateko erakunde publikoa den aldetik, Goren Kontseilua da euskal administrazio publikoen aholkularitzaren arloko erreferentzia kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako. Funtzio hori ekitaldi honetan egindako nahitaezko txosten horietan gauzatu da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen dekretua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan eta entitateetan elkarketa egiturak sendotzeko laguntzen deialdirako oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomian enpresek elkarren artean lankidetzan aritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna hedatzeko eta ezartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Enpresetan laguntza teknikoa emateko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.

Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea



- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako prestakuntzarako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Ekimenak egiteko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2024rako deialdia egiten duena.
- Kooperatiben Lege Erregelamenduaren Dekretuaren Agindua.



3.2 Kontsultak

Euskal Kooperatibismoaren eremuan, letradu aholkulariak interpretazio juridiko orokorrari buruzko hainbat kontsultari erantzun die. Hau da kontsulta horien laburpena, kooperatiba moten arabera eta landutako gaien arabera:

KONTSULTAK (Landutako gaiaren tipologia)		KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
Eratzea	15	LAN ELKARTUA	183
Organo sozialak	27	ETXEBIZITZAK	117
Erregimen ekonomikoa	40	IRAKASKUNTZA	70
Administrazio Publikoa	11	KONTSUMOA	2
Likidazioa	186	GARRAIOLARIAK	2
Eraldaketa	33	KREDITUA	0
Hainbat gai	63	NEKAZARITZA	1
GUZTIRA	375	GUZTIRA	375

3.3 Kooperatiben Legearen hirugarren aldaketa

Abenduaren 10ean, Euskal Ganbarak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen hirugarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horrek erakusten du, berriro ere, Euskal Mugimendu Kooperatiboaren (KONFEKOOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta KOOOPERATIBEN KONTSEILUAK ordezkatuta) eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren artean dagoen lankidetzeta, bai eta talde politiko guztiek, Vox izan ezik, ehun kooperatiboari laguntzeko, hau da, gure ekonomiaren funtsezko zutabea denari laguntzeko egindako batasuna ere. Zehazki, Heziketa eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena (IPDK) izeneko funtsa arautzen duen 72. artikulua aldatu da.



Erreformak atal berri bat ezarri dio artikulu horri, eta Funts horrek hondamendi naturalen ondorio suntsitzaileetarako izan ditzakeen helburuak gehitzen ditu, hala nola Valentziako Erkidegoan eta beste leku batzuetan urriaren 29an eragin zuen GOIDla.

Idazketa berriaren arabera, 1981eko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoaren arabera deklaratzeko diren alarma, salbuespen eta setio egoerak indarrean dauden bitartean, Estatuak eremu bat babes zibileko larrialdi batek larriki kaltetutako eremu izendatzeko duenean edo autonomia erkidego batek leku batean hondamen larrialdiko egoera deklaratzeko duenean — babes zibileko eta larrialdiak kudeatzeko legeei jarraituz — , kooperatibek IPDK funts osoa edo zati bat erabili ahal izango dute, helburu hauetarako:

- a) Finantza baliabide gisa, kooperatibari likidezia emateko, larrialdi egoerak zuzenean eragiten badio eta bere funtzionamendurako beharrezkoa badu.
- b) Aipatutako deklarazioen ondoriozko larrialdi egoera geldiarazten edo murrizten laguntzen duen eta/edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jardura egiteko.

Administrazioarekiko harremana eta hari laguntzea



Azken batean, premiazkoztat jo da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren neurriak hartzea, tragedia horren biktimei eta etorkizunean gerta daitezkeen hondamendien biktimei ere kaltetutako ondasunak berreraikitzen eta konpontzen laguntzeko.

Larrialdi egoeren aurrean, Espaniar estatuan hartzen diren neurriei gain, esparru juridiko propioa eta egonkorra eman zaie euskal kooperatibei IPDK funtsaren erabilgarritasunari dagokionez, haren erabilera aldi baterako eta ezohiko egoeretarako malgutuz.

Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenak kontrolatuko du nola erabiltzen den funtsa, erabileraren premia eta xedea egiaztatzeko.

3.4 Asmoen Akordioak eta lankidetzakoak

2024ko apirilera EAEko hauteskunderen ondorioz talde berriak osatu dira Eusko Jaurlaritzako sailetan, eta, beraz, formazio berri horiekin Asmoen eta Lankidetzaren Akordioa aktibatu behar izan da.

Euskal aldundiekiko Asmoen eta Lankidetzaren akordioei dagokienez, 2024an hiru lurraldeetako foru erakundeekin bilera erronda amaitu zen, eta dokumentuak lantzen hasi dira. Horrela, urte honetan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zirriborro bat partekatu da tramitazioa hasi aurretik.

3.5 Topaketa instituzionalak

2024an, hainbat bilera egin dira Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin, eta, horien artean, Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren aurkezpena eta Kooperatiben Erregistroko arduradunarekin izandako beste bilerara joan izana nabarmendu behar da.



3.5.1 Lehendakariordea Osoko Bilkuran

Kargua hartu ondoren, Mikel Torres Lorenzo bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak KOOPERATIBEN KONTSEILUAREN iraileko osoko bilkura presiditu zuen. Torres lehendakariordearekin batera, Elena Perez Barredo Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak, Iñaki Ruiz Ekonomia eta Europako Funtsetako sailburuordeak eta Jokin Diaz Arsuaga Gizarte Ekonomiako zuzendariak parte hartu zuten osoko bileran. Legealdiaren hasiera honetan, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK aukera baliatu zuen lehendakariordeari konpromisoa berritzeko beharra jakinarazteko, kooperatibismoa esparru publikotik babesten jarraitzeko.

3.5.2 Lehendakariordearekin bilera

KOOPERATIBEN KONTSEILUA eta KONFEKOOP Mikel Torres Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarekin elkartu





ziren 2025ean Kooperatiben Nazioarteko Urtea ospatzeko bi erakundeek diseinatutako asmo handiko jarduera egutegia partekatzeko.

Elena Perez Barredo Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea eta Jokin Diaz Gizarte Ekonomiako zuzendaria lehendakariordearekin batera izan ziren, eta hark KOOPERATIBEN KONTSEILUari eta KONFEKOOPI jakinarazi nahi izan zien erakundeen eta kooperatiben arteko lankidetza horrek erronka globalei aurre egiteko duen garrantzia, batez ere trantsizio energetikoaren, digitalizazioaren eta talentuaren sustapenaren esparruan, bai eta lege eta arau garapenean ere, hori Eusko Jaurlaritzaren eskumen eksklusiboa baita.

3.5.3 Eusko Legebiltzarrean agertzea

KOOPERATIBEN KONTSEILUKO ordezkariak Ekonomia, Lan eta Enplegu Batzordean agertu ziren abenduaren 16an. Patxi Olabarria presidenteak, Jokin Diaz Arsuaga presidenteordeak eta Rosa Lavin KONFEKOOPEko presidenteak legegintzaldi honetako legebiltzarkide berriei azaldu zieten zein den Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak egiten duen lana. Agerraldi horretan Kooperatiben Nazioarteko Urterako aurreikusitako jarduerak aurkeztu ziren, euskal enpresa kooperatiboen erradiografia zenbakitan aurkezteaz gain, eta euskal gizartearentzako eragin positiboak azpimarratu ziren.

Hitzaldi horren aurretik, Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUKO presidenteak Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidenteari jakinarazi zizkion 2025ean Kooperatiben Nazioarteko Urtea ospatzeko hurrengo ekitaldian egingo diren jarduerak.






Kooperatiben Erroldako datuak



4.1 Kooperatiba berriak

2024AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA BERRIAK,
KOOPERATIBA MOTAREN ETA LURRALDE
HISTORIKOAREN ARABERA

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
LAN ELKARTUA	137	24	53	60
KONTSUMOA	5	-	-	5
ETXEBIZITZAK	13	2	9	2
ZERBITZU PROFESIONALAK	1	-	1	-
ENPRESA ZERBITZUAK	1	-	1	-
MISTOAK	1	-	-	1
GUZTIRA	158	26	64	68



4.2 Kooperatibak azkentzea: eraldaketak eta likidazioak

Goren Kontseiluari legez esleitutako funtzioetako bat da kooperatiben azkentze prozesuetan esku hartzea, kooperatiba formulari dagokionez. Esku hartze hori eraldaketa sozietarioak homologatzeko edo kooperatibak likidatzeko espedienteak izapidetuz gauzatzen da. Zentzu horretan, 2024an kooperatiba eraldatu eta beste formula juridiko bihurtzeko 11 espedienteri buruzko akordioak hartu dira, bai eta likidazioen 70 espedienteri buruzkoak ere. Bi kasuetan Goren Kontseiluak esku hartuta, 11/2019 Legean hala jasota baitago, bermatuta geratzen da funts banaezinak eta likidazio prozesuetako azken emaitza ere Kontseiluaren esku jartzea. Zentzu horretan, kopuru horiek Kontseiluaren esku jarri ondoren, kooperatibismoa sustatzeko eta zabaltzeko erabiltzen dira.

Lehen aipatutako espedienteetan esku hartzeagatik, guztira, 437.151 € itzuli dira.

LIKIDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	38
ETXEBIZITZAK	29
NEKAZARITZA	2
IRAKASKUNTZA	1
GUZTIRA	70

ERALDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	11
GUZTIRA	11



4.3 Kooperatiben errolda

INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK GUZTIRA, 2014-12-31N*

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	113	55	30	28
ENPRESA TALDEAK	1	1	-	-
KONTSUMOA	69	7	22	40
KORPORAZIO KOOPERATIBOAK	1	-	-	1
KREDITUA	-	-	-	-
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	44	9	13	22
IRAKASKUNTZA	102	12	47	43
ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK	5	3	1	1
GIZARTERATZEA	1	-	1	-
MISTOAK	44	8	9	27
ENPRESA ZERBITZUAK	53	14	13	26
ZERBITZU PROFESIONALAK	38	6	19	13
LAN ELKARTUA	2.774	361	1.288	1.125
LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA	4	-	-	4
GARRAIOAK	2	-	2	-
ETXEBIZITZAK	492	99	318	75
GUZTIRA	3.743	575	1.763	1.405

KOOPERATIBAK GUZTIRA, KOOPERATIBA MOTAREN
ETA LURRALDEEN ARABERA, 2024-12-31N*

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
KOOPERATIBAK	1.977	347	905	725
KOOPERATIBA TXIKIAK	1.766	228	858	680
GUZTIRA	3.743	575	1.763	1.405

*Iturria: Kooperatiben Erregistroa.



Arbitraje zerbitzua: Bitartu



5.1 Kooperatiben eremuko bitartekariei buruzko ikastaroa

KOOPERATIBEN KONTSEILUAK 2024ko urriaren 2tik azaroaren 27ra arte kooperatiben arloko bitartekarien formazio erdipresentzialerako ikastaro berri bat antolatu zuen. Formazio horrek Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko Bitartekarien Erregistrora sarbidea ematen du.

Helburua da profesionalak teknikoki prestatzea, gure erakundeetan egon daitezkeen pertsonak zein gatazka egoerak kudeatzeko, erakunde eraginkor, produktibo eta osasungarriak lortzeko. Lankidetzako bitartekariak prestatzeko ikastaroa kooperatibetako gatazka egoerei erantzun behar dieten arduradun eta erdi mailako arduradunei eta kanpoko aholkulariei zuzenduta dago.

5.2 Kontsulten datuak. Adiskidetzeak. Arbitrajea

Azken estatistikak aztertzean, ikusi da prozedura arbitraletako espedienteak murriztu egin direla. Esan daiteke, beraz, arrakastatsuak izan direla bai egiten den prebentzio lana, bai gatazkek konpontzeko arbitrajeaz harago ezartzen diren tresnak. Gainera, lortutako emaitzak egokiagoak dira esku hartzen duten aldeentzat, ez baita beharrezkoa hirugarren pertsona batek bietarako erabaki lotesle bat hartu behar izatea. Horrek, gainera, aldeak, alde bat behintzak, gustura ez geratzea ekartzen du askotan.



KONTSULTAK (Aztertutako gaien arabera)	
BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	
Informazio eskubidea	5
Zigor erregimena	3
Bazkideen eta lan eskubideak	15
ORGANO SOZIALAK	
Erabakiak aurkaratzea	8
Beste gai sozietario batzuk	25
ARAU BIDE EKONOMIKOA	
Diru kopurua erreklamatzea baja sozietarioagatik	33
Beste gai ekonomiko batzuk	6
HAINBAT	3
GUZTIRA	98

KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	25
ETXE BIZITZAK	55
IRAKASKUNTZA	6
KONTSUMOA	0
GARRAIOLARIAK	4
KREDITUA	1
NEKAZARITZA	7
GUZTIRA	98



KONTZILIAZIOAK	
Ekarpenak itzultzea	1
Informazio eskubidea	2
Presidentearen eta letradu aholkulariaren erantzukizuna	1
Diru kopurua erreklamatzeko	6
Etxebizitzaren kooperatibaren likidazioa	1
Etxebizitza kooperatibetan bazkideek baja ematea	3
GUZTIRA	14





Hala ere, salbuespenezko bidea 6 aldiz erabili da ekitaldi honetan, hurrengo koadroan ikus dezakegun bezala, konponketarako aurkakotasun bide guztiak agortu ondoren.

Kasu hauetan, arbitrajeak alderdiei eskatzen die Erregelamenduak ezartzen duen prozedura arautuaren mende jartzea eta zerbitzu horren esku uztea arbitroaren izendapena, erabaki loteslea ha dezan bi aldeentzat, zuzenbidea edo ekitatea aplikatuz, eta, horrela, eztabaida behin betiko amaituta.

ARBITRAJEA	
Diru kopurua erreklamatzeari	3
Zehapena inpugnatzea	1
Erabakia inpugnatzea	2
GUZTIRA	6

BITARTUren esku hartzea, euskal kooperatibetako justizia auzitegien alternatiba gisa ez ezik, horren prebentzio neurriak sustatzeko ere badela ulertu behar da.





Erakunde partaidetuak



6.1 Elkarlan, S.COOP

Elkar Lan, S.COOP. bigarren mailako kooperatiba bat da, eta, 2003an eratu zenetik, bere helburua eta azken xedea izan da enpresa kooperatiboak sustatzea eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa sortzea eta garapen ekonomikoa eta soziala lortzea.

Kooperatiba jaio zenetik, Goren Kontseilua erakunde horretako bazkidea da, Konfekoopekin batera, eta une honetan hiru ordezkari ditu hango Kontseilu Errektorean: Patxi Olabarria eta Pablo Durana, Osoko Bilkurako presidentea eta kontseilukidea diren heinean, eta Belen Balerdi, Goren Kontseiluko idazkari nagusia den heinean.

Lurralde Historikoa	2024an sortutako kooperatiba berriak	2024an sortutako enpleguak
Araba	21	42
Bizkaia	47	121
Gipuzkoa	63	143
GUZTIRA	131	306

2024an, Euskadin sortutako 155 kooperatibetatik 131 Elkar-Lan S.Coop.ek eratu ditu, 306 lanpostu sortuta. Hona hemen , eratu diren kooperatiben xehakapena, Lurralde Historikoen arabera.



6.2 Elkargi, SGR

Kooperatiben Kontseilua Elkargiko bazkide babeslea eta Elkargiko Administrazio Kontseiluko kidea da, erakunde partaidetu den heinean, eta Belen Balerdi Ozaeta Goren Kontseiluko idazkari nagusiaren bidez parte hartzen du bertan.

Elkargik 23.100 enpresa bazkide baino gehiago ditu gaur egun eta enpresa ehunari bere zeregin finantzarioaren profesionalizazioa hobetzen laguntzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie.

2024an egin duen finantza jarduerari dagokionez, Elkargik 1400 enpresa ingururi lagundu die finantzaketarekin. Enpresa horiek, berriz, guztira 10.000 milioi euroko bolumena fakturatzen dute. 415 milioi euro baino gehiagorekin finantzatu du, eta azken hiru ekitalditan izan duen finantza jardura 430 milioi eurotik gorakoa izan da batez beste, jardura kopuru horretan finkatuta. Proiektu horien artean Euskadiko gizarte ekonomiako ekimenak daude.

Aholkularitza lanetan aritu da gehien bat. Hala, 2024an fakturazio orokorra %48 igo zen aurreko urtearekin alderatuta. EFK, Elkargi Financial Knowledge, enpresetarako erreferente "berria" bihurtu da: kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, gestio kontrola eta diruzaintza, berregituraketa finantzarioko planak... Halaber, familia enpresa, dirulaguntzen gestioa eta abar. Azkenik, aparteko aipamena, bere Metix arriskuen gestioarako soluzioa: dibisaren estaldura, lehengaiak eta interes tasak egungo hegazkortasunaren aurrean.

2024an egin dituen ekitaldi desberdinetatik, 34. Enpresa Topaketa nabarmentzen da, non gizarte ekonomiako enpresak biltzen dituzten erakunde eta elkarteetako ordezkariak eta Kooperatiben Kontseiluko arduradun nagusiak ere egon ziren. Jardunaldi horretan parte hartu zuten Mario Monti Italiako Lehen Ministro ohiak, Javier Solana Esadeko Ekonomia Globaleko eta Geopolitikako Zentroko Presidente eta NATOk idazkari nagusi ohiak, Nadia Calviño Europako Inbertsio Bankuko presidentea eta Daniel Innerarity Filosofia politiko eta sozialeko katedradun eta Euskal Herriko Unibertsitateko IKERBASQUE ikertzaileak.





2024ko ekitaldi ekonomikoa



7.1 Balantze Ekonomikoa eta Soziala

2024	Gauzatua	Aurrekontuan jasotakoa
SARRERAK	1.229.554 €	1.185.633 €
Diru sarrera arruntak	674.901 €	678.976 €
Egitura Sarrerak	476.657 €	476.657 €
Beste diru sarrera batzuk	77.996 €	30.000 €
GASTUAK	1.149.617 €	1.185.633 €
Langileen gastuak	252.720 €	250.557 €
Funtzionamendu gastuak	94.621 €	107.919 €
Zuzeneko Gauzatzeen gastuak	325.619 €	350.500 €
Egitura gastuak	476.657 €	476.657 €
Eraitza	79.937 €	- €




Jarraian, Balantze Sozialaren datuak adierazten dira.

Itzulera ratio batzuk

Eraginkortasunaren azterketa eta balio-banaketa

Legebiltzarraren finantzaketako €bakoitzeko (Kontseilu Gorenaren jarduerarako)

3,35 euroko balio soziala sortu da 2024an, eta 3,55 €2023an.





7.2 Kudeaketa Planaren betetze maila

2022-2024 plan estrategikotik sortu den kudeaketa planaren ebaluazioa positiboa da. Planean garatu beharreko bost erronketako bakoitzean, garatu beharreko neurri batzuk zehaztu ziren, eta honako hau izan da horien betetze maila.

1. Erronka. Kooperatiba kopurua handitzea. Zazpi neurri identifikatu ziren, eta horien %57,14 egin da. %28,57 prozesuan dago, eta %14,29 hasi gabe.

2. Erronka. Kooperatibismoaren ikusgarritasuna hobetzea eta gizartean harrera hobe edukitzea. 22 ekintzatatik %77,27 egin da, %13,64 prozesuan dago, eta %9,09 hasi gabe.

3. Erronka. Kooperatibismoari buruzko ezagutza neurtzeko sistema bat garatzea. Bi helburuetatik bat egin da eta bestea hasi gabe dago; beraz, %50 egin da eta %50 hasi gabe dago.

4. Erronka. Administrazio publikoen funtsezko aliatua izatea kooperatibismoaren garapenean. Bost ekintzatatik hiru egin ahal izan dira, bi prozesuan daude eta bi ez dira hasi, hau da, %50 egin da, %7 prozesuan dago, eta %33 hasi gabe.

5. Erronka. Eginkizunen garapenean aurrera egitea eta modernizatzea. Identifikatutako 11 neurrietatik hamar gauzatu dira eta bat prozesuan dago da; beraz, %80 egin da eta %20 hasi gabe dago.

Laburbilduz, kudeaketa planaren konpromisoen %90 baino gehiago garapen fasean daude edo dagoeneko egin dira.